



Hau da aste honetako euskararen pilula!

“ejecución forzosa” euskaraz, nola?

Ejecución forzosa > nahitaezko betearazpen, nahitaez betearazte, nahitaezko exekuzio, nahitaez exekutatz

Horrela definitu zen 2012ko Administrazioarekiko Auziak Hiztegian “**epaiaren nahitaezko betearazpen**” (“epaia nahitaez exekutatz” > “ejecución forzosa de sentencia”):

Epaia betearazteko abian jartzen den prozesu-aldia, epaia epe barruan bete ez denean edo epaia jakinarazi denetik legean ezarritako denbora igaro denean hasten dena.

ADIBIDE BATZUK

- “Entrada en domicilios y restantes lugares para la **ejecución forzosa** de las medidas de protección de menores” > “Egoitzetara eta gainerako tokietara sartzea adingabeen babes-neurriak **nahitaez betearazteko**”
- “Las disposiciones del presente Título se aplicarán cuando la **ejecución forzosa** proceda en virtud de un título ejecutivo del que, directa o indirectamente, resulte el deber de entregar una cantidad de dinero líquida” > “Titulu honen xedapenak aplikatuko dira **nahitaezko betearazpena** datorrenean diru-zenbateko likido bat entregatzeko eginbeharra zuzenean edo zeharka dakarren titulu betearazle baten ondorioz”
- “La **ejecución forzosa** sólo terminará con la completa satisfacción del acreedor ejecutante” > “**Nahitaezko betearazpena** amaituko da, soilik, hartzekodun betearazlea erabat asebetetzen denean”

ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)